


ELIZA ETA INGURUAK



BETIKO GETXO

Garai batean, Elexalde, elizaren inguruko etxeei esaten zitzaien. Auzoari Getxo eta auzotarrak getxoztarrak ziren.

Gaur egun auzoari Andra Mari esaten diogu.



Andra Maria

Garai batean parrokia bakarra zegoen Getxon, Andra Maria, eta bertara elizkizun nagusietara auzo guztietakoak joaten ziren.

Elizak, oro har, leku berezietan eraikitzen ziren, askotan muino batean, auzo edo herri guztia ikusteko. Gainera, elizpeetan udalerriko erabakiak hartzen ziren eta horregatik lehenengo udaletxeak euren inguruan sortu ziren.



Ikusten duzun harrizko mahai hori Andra Maria elizaren mendebaldeko sarreran dago. Horren inguruan, elizpean, biltzen ziren auzotarrak batzarrak egiteko eta udalerriko erabakiak hartzeko. Horregatik, Getxo ez da hiribildua, elizatea da, "anteiglesia" deritzona.

Getxok auzokoentzat bi zati zituen, Goierri eta Bearri, muga eliza zena. Elizak bi ate ditu eta tradizioak agintzen zuenez alde batetik, ekialdetik, "Goierrikoak" sartzen ziren eta bestetik "Bearrikoak".

Hilerria

XV. mendean, eliza inguruan zeuden hilobiak elizan sartu ziren, leku santua bilatzen. Familiek hilobi bana zuten elizan, bere izenarekin eta normalean baserriari helduta. Atzerritarrentzako hezurtegia ere bazegoen. Gero, XIX. mendean eliza konpontzean, egurrezko zorua jarri, hilobiak itxi eta hilerri berria kanpandorrearen azpian kokatu zen. Dorrean Getxoko 166 baserri-izen ikus daitezke. Baserrien zerrenda hau elizari hamarrena ordaintzen ziotenek osatzen dute.




Parrokia bakoitzak bere hilerria izan zuen eta Getxon bi egon ziren: Andra Maria eta San Nikolas (goikoa, ez Portu Zaharrekoa). Udal hilerria Algortan zegoen, "*Campa del muerto*" deritzon, gaur egungo Agirre lehendakariaren parkean.

XIX. mendean Getxok hazkunde demografiko handia izan zuen eta berehala geratu zen txiki udal hilerria. Bestiak itxi egin ziren eta oraingo hilerria, Karmengo Amarena, XX. mendearen hasieran egin zen.

Guardako Aingerua

Euskal Herrian ohikoa da baselizak bide-ertzetan edo bidegurutzeetan egotea bidaiariei babesa emateko. Getxoztar ugarik, tradizioz, diru apur bat uzten zuten testamentuan ermita hau zaharberritu eta mantentzeko.



Barruan bi irudi ditu: Guardako Aingerua eta Errosarioko Ama.

Benta (Bentazarra)

Bentak historian Udaleko azpiegiturak izan dira eta familia batek zerbitzua ematen zuen. Puntu neuralgikoa zenez, udaletxearekin eta elizarekin batera, denetarako balio ohi zuten.

Hor auzokideek bilerak egiten zituzten, bidaiariek atsedean hartzen zuten eta zerbait edateko lekua ere bazegoen.

Getxok benta batzuk izan ditu historian, baina garrantzitsuena Guardako Aingeruaren ondokoa, Bentazarra, izan da.



Gaur egun ezagutzen dugun eraikuntza XX. mendean eraiki zen aurrekoaren ordean. Etxe hau herriarena da eta alogeran hartzen duena behartuta dago nekazariak biltzeko gela gordetzera.

ARIKETAK:

1. Gaur egun zeri deitzen diogu Getxo? Eta lehen?
2. Non sortu ziren lehenengo udaletxeak? Zergatik?
3. Non egiten zituzten auzotarrek lehenengo batzarrak?
4. Zer dira Goierri eta Bearri?
5. Hilerrriak. Lotu datak gertakizunekin:

Lehen	Hilobiak eliza barrura sartu zituzten. Atzerritarrentzako hezurtegia ere bazegoen
XV. mendean	Orain ezagutzen dugun hilerria egin zuten
XIX. mendean	Hilobiak eliza inguruan zeuden
XX. mendean	Eliza konpontzean, egurrezko zorua jarri, hilobiak itxi eta hilerri berria kanpandorrearen azpian kokatu zen

6. Non eraikitzen ziren basilizak? Zergatik?
7. Getxok benta batzuk izan ditu historian, baina Bentazarra izan da garrantzitsuena. Zertarako erabiltzen zen? Eta gaur egun zein da bere funtzioa?

HONDARTZAK ETA KOSTALDEA



Barinatxe (Salvaje)



"*La Salvaje*" izena nahiz eta berria izan, gehien erabiltzen duguna da. Baina hondartza honek beste bi izen zaharrago ditu: *Solondota* (eta Solandota) eta Barinatxe.

Solondota izena Sopelako aldeari dagokio eta *Barinatxe*, berriz, Getxokoari. Azken horrek Sopelako Barinoa baserrian du jatorria; *barino* eta *atx* (haitza) hitzek osatzen dute. Solondota izenaren osagaiak, berriz, *solo* hitza, *ondo*, eta, lekua edota ugaritasuna adierazten duen *-eta* atzizkia dira.

Gorrondatxe (Askorri)

Askorri izena normalean hondartza izendatzeko erabiltzen dugu, baina hitzaren osagaiak aztertzen baditugu, konturatzen gara haitz bat dela. Lehen esan dugun moduan, "atx" hitzak haitza esan nahi du eta "gorri" hitza batzuentzat haitzaren kolorea den artean, beste batzuen ustez kasu honetan ez du kolorea adierazten, "hutsa" esangura du.



Askorri Barinatxe eta Gorrondatxe hondartzen artean dagoen haitza da eta goiko aldean bunker bat du. Beraz, esan dezakegu Askorri lurmuturra dela.



Beraz, hondartza honi Gorrondatxe deituko diogu. *Gorrondoa* etxe-izena da eta *atx* (haitza) hitza agertzen zaigu berriz. Hondartzetara joatea modan jarri zenean Gorrondatxe eta Solondota/Barinatxe hondartzen artean dagoen Askorri atxaren (edo haitzaren) izena erabiltzen hasi zen hondartza hau izendatzeko.

Sakuskune

Gorrondatxeko mendebaldeko kostaldeko haitzei deitzen diegu. Inguru horretan itsasoko ura Galeara bidaltzeko ur-ponpa egon zen.



Tunelboka eta Malakate

Bilbotik Getxora 10 km baino gehiagoko tutua eraiki zuten Bilboko hondakin-ur guztiak ateratzeko eta *Tunelboka* edo *Kakaleku* izeneko hondartzan itsasoratzen zen ur zikin guztia. Jaisteko eskailera luzea dago eta goiko aldean harea eta harria igotzeko erabiltzen ziren tresneriaren aztarnak daude. Hemengo harea etxeak egiteko erabiltzen zen.



Tunelbokaren ondoan dagoen haitzari Alpenarri deitzen zaio. Hori izan daiteke Tunelbokaren jatorrizko izena.



Getxon hodiak oso sakon daude eta tunel bihurtzen dira, igoerak saihesteko eta ponpak lan gutxiago egiteko. Tuneletara jaisteko dauden etxetxoei *Malakate* deitzen zaie, eta handik pasatzen ziren konponketak egin behar zituztenean. Txiki geratu zirenean, beste erabilera batzuen artean, azken gerrako babesleku izan ziren.



Malakatea, berez, lanabes bat da. Zilindro batean lotzen da kable bat eta pisuak gora eta behera garraiatzeko balio du.

Galea

Galea izenak amildegi, lurmuturra eta inguruan dagoen leku zelai handia izendatzen du. Gaur egun golf-zelaia dagoen ingurura getxoztarrek abereak eramaten zituzten abere-bazkan.

Beheko harkaitzetan beti bildu izan dituzte egurra, txatarra eta, geroago, ikatza, bereziki fabrikek itsasora gabarretan botatzen zituzten hondakinetatik.

70eko hamarkadan Europako lekurik kutsatuenetariko bat zen; biodibertsitatearen zein uraren egoera oso txarrak ziren. Agintariek itsasadarra garbitzea erabaki zutenetik egoera asko hobetu da, eta gaur egun urak oso garbiak dira eta fauna eta flora ugari dago.

1852. urtean itsasargi bat eraiki zuten inguruan itsasontzi asko hondoratzen zirelako. Amildegi ondoan zegoen eta azkenean lekuz aldatu behar izan zuten lur-jausiak zirela eta. Orain ezagutzen duguna 1950. urtean eraiki zuten.



Galeako gotorlekua



Galea gotorlekua edo *Printzearen Gaztelua* Bizkaian geratzen den XVIII. mendeko eraikuntza militarren adibiderik onena da. *Printzearen Gaztelua* barruan beste dorre bat dago. Itsasargi-funtzioa bete zuen bere garaian, baina talaia ere izan zen. Harearrizko harlanduz eginda dago, eta eskailera kiribil bat dauka barnealdean goiko terrazara igo ahal izateko.

Talaiak itsasoa begiratzeko erabiltzen ziren eta bi funtzio nagusi zituzten, bata militarra eta bestea merkataritzarako. Handik kostatzen zen eta jakin zitekeen itsasontziek zer zekarten eta laguntzarik behar zuten. Bertatik eguraldia ere interpretatzen zen.

Bizkaiko kostalde guztian egon ziren talaiak itsasoa zaintzeko, baina Getxokoek, Abraren gainean egonda berebiziko garrantzia izan zuten.

ARIKETAK:

1. Guk ezagutzen dugun "*La Salvaje*" hondartzak bi izen zaharrago ditu. Azaldu Bi toponimo horien esanahia.
2. Zein da Askorri hitzaren esanahia?
3. Orduan, nola deituko diogu hondartzari? Nondik dator izen hori?
4. Azaldu Sakuskunek, Tunelbokak eta Malakateek bete zituzten funtzioak.
5. Galeara zertara joaten ziren getxoztarrak? Eta gaur egun zertara joaten gara?
6. Zenbat talaia daude Getxon? Zein zen bere funtzioa?
7. Bilatu itsasoan orientatzeko tresnei buruzko informazioa, historian erabili direnak eta gaur egun itsasontziek erabiltzen dituztenak.

AUZO ETA ALDEETXEAK



Aldeetxea

Izen hau Getxon eta Uribe Kostan euskaldunen artean erabiltzen da baserria izendatzeko. Zonalde honetan baserria, "kalea ez dena" eta belardiak hartzen dituen inguruari deitzen zaio.

Badago Getxon Baserri izeneko auzoa eta kalea. Haran honetan Bolunzarreta eta Ibarrekoerota izeneko errota zaharrak daude, eta azken urteotan Getxoko zabortegia egon da. Inguruan etxe gutxi egon da eta, batez ere, getxoztarren abereak bazkatzeko lurrak izan ziren.

Estrata

Latineko *strata* hitzetik dator. Baserrien arteko bidexkei esaten zaie eta zapal dutako lurra edo ibiltzeko bidea esan nahi du. Baserriek ematen diete izena gehienetan estratei. Hau da, Diliz estratari izena Diliz baserriak ematen dio.



Duela ehun urte Getxok auzo ugari zituen.

Arteaga

Izenaren osagaiak hauek dira: *Artea* (*Quercus ilex*) zuhaitz-izena eta *-aga* atzizkia.

Artea Getxoko zuhaitz arruntenetako bat izan zen eta gaur egun desagertzeko zorian daude geratzen diren azkenengo zuhaitzak.

Auzoa baserri batzuek eratzen dute. Badirudi jatorrizko Arteagari Arteagaurrekoa eta Arteagabekoa deitu ziotela eta berriari Arteagaosteikoa. Azkenean, XX. mendean Arteagatzekoa eta Arteagaurre izenak finkatu ziren. Hirugarren etxe bat ere eraiki zen geroago, Arteagabarri.



Torretxe

Etxe honen izena oso arrunta da, *torre* eta *etxe* hitzez osatuta dago. Baserriek edo nekazal-jauregiak "Torretxe" izena hartzea ohikoa da prestigiogatik, baina ez ziren torreak.



Etxe-eredu hau da ugariena Getxon eta baserri-eredu berbera jarraitzen du: espoloiak, egurrezko habea ataria irekitzeko, goiko aldean zurezko egitura, eta ataria beti hegoaldera.

Diliz

Badirudi izen honetan Euskal Herrian hain ugaria den *-i(t)z* jabego atzizkia dugula. Nahiz eta atzizki hau Nafarroan erabili, Bizkaian ere adibide asko dugu, *Muskiz* adibidez. Aurreko osagaia Tilius pertsona izenetik erator daiteke.

Bizkaian ohikoa den bezala, *Diliz* baserri-izena izatetik auzo-izena izatera heldu zen. Inguruan etxe berriak eraiki zirenean Diliz osagaia hartu zuten.

Dilizbarrenetxea etxeak berehala galdu zuen lehenengo osagaia eta Barrenetxea bihurtu zen. *Barren*, "beheko", eta *etxe* hitzek osatuta dago.

Dilizandi etxea ere eraiki zen, *Diliz* eta *handi* adjektiboaz osatutako izena. Geroago, Diliz ondoan Dilizbarri etxe berria eraiki zuten eta aurrez aurre Dilizondo.



Ibarra

Ibarra hitz arrunta da eta bi adiera nagusi ditu: "harana" eta "zaldua".

Gaur egungo getxoztarrentzat *Ibarra* izena baserri batzuen izena besterik ez da, baina XVII. mendean auzo garrantzitsua izan zen.

Auzoa izateaz gain etxe-izena ere bada, eta etxe honetatik sortu zen Ibarako kondeen leinua.

Etxe bakarra zegoen inguruan berriak eraiki ziren, eta ondorioz *ibar-* osagaia duten baserri batzuk ditugu Getxon.

Ibarra baserriak berak hainbat izen izan ditu: Ibarjauregi eta Ibarraurrekoa edo Ibarrabekoa.

Ibarra izeneko etxe berria eraiki zenean, biak bereizteko "bengoa" gehitu zitzaion berriari: Ibarbengoa. Inguruko estrata izendatzeko ere erabili izan zen izen hau.

Ibarragoikoa edo *Ibarraostekoa* izenaren osagaiak *Ibarra* etxe-izena eta *oste* 'atze' dira.



Saratsaga

Etxe honen osagaiak *sarats* zuhaitz izena (*Salix* sp.) eta *-aga* atzizkia dira.

Hasieran Saratsaga izeneko baserri bakarra zegoen, dorretxea zela esaten da. Geroago berriak eraiki ziren eta Saratsaga auzo-izena izatera pasatu zen.



Oso desitxuratuta egon arren, aldetxeen egitura berbera du.



Interesgarriena atzeko partean dago, hormaren konposizioa XVI. mendean egiten da eta puntu-erdiko leiho estalia ere badago.

Moreaga / Larrazabal

Larrazabal izena zuten auzo eta etxe hauek, baina XIX. mendean izenez aldatu eta *Moreaga* deitzen hasi ziren. Tamalez, ez dakigu zeintzuk diren izenaren osagaiak amaierako *-aga* alde batera utzita.

Gaur egun Moreaga izeneko baserri bi ditugu, Moreagatze (Moreagazarra edo Moreagaostekoa) eta Moreagaurre (Moreagabarri).



Etxebarritxu

Izen argia, *etxe* hitzaz, *barri* adjektiboaz eta *-txu* txikigarriaz osatuta. Etxetxubarri ere deitzen diote.



Zientoetxe

Baserri-izena da eta gaur egun ezagunagoa den bideari ere deitzen diogu. Nahiz eta izenaren osagaiak argiak izan: *ziento* eta *etxe*, esanahia ez dago argi.

Bide hau Udalak eraiki zuen hondartzetara joaten zen jendetzari erraztasunak emateko.



ARIKETAK:

1.-Zer da aldeetxea? Eta estrata?

2.-Zeintzuk dira "Arteaga" hitzaren osagaiak?

3.-Arteaga auzoan hainbat etxe eraiki ziren *arte-* hitzaz osatuta. Idatzi etxeen izenak eta komentatu, klasean, erabili zituzten atzizkiak.

4.-Beste auzo batzuekin berdin gertatu zen: Diliz, Ibarra eta Moreaga. Auzo horretan etxe-izenak jartzeko orduan erabiltzen ziren osagaiak bildu hurrengo taulan.

Diliz-	Ibar-	Moreaga-

5.-Komentatu taldekideekin jasotako datuak.

6.-*Torretxe* izena bi hitzetan banatu dezakegu. Bi hitzen esanahia argi dago, baina zein zen bere funtzioa?

7.-Zeintzuk dira hurrengo hitzen osagaiak?

Moreaga:

Etxebarritxu:

Zientoetxe: